

ISELA GONZÁLEZ ETA AMADA CHAVEZ

# Elkar babestuz borrokatzen duten emakume ekintzaileak

Mexikoko bi emakume hauen bizitzak indarkeriak eta desplazamenduak zeharkatzen ditu. Haien familiarako edo komunitateko kideak hiltzen ikusi dituzte, eta krimen antolatua zabaltzen duen terrorea azalean sentitu dute; mehatxuak, jazarpena... ohiko dituzte. Baina horrek guztiak

borrokan jarraitzeko arrazoi gehiago besterik ez dizkie eman, ez baitute euren bizia ulertzen lurraren eta herri indigenen eskubideen aldeko aktibismoan segi gabe. Halabeharrez, bidean euren buruak babesten ikasi dute, eta sarean, komunitatean eta elkartasunean indarrez betetzen.

 LEIRE ARTOLA ARIN  EDDY ZETA / PRENSA COMUNITARIA

**A**RGIAk Guatemalara egindako bidaian ezagutu ditugu Isela González Díaz eta Amada Chavez Armendáriz. Mugarik Gabe GKEak gonbidatu gaitu hara kazetariok eta bi mexikarrak. Mexikoko borrokak eta ikusmoldeak Guatemalako ekintzaileekin konpartitutakoan, berretsi dute Erdialdeko Amerikako bi herrialde horietako jatorrizko herriek zapaltzaile amankomunak dituztela: kolonizazioa, oligarken eta multinazionalen estraktibismoa, kapitalismoa... Gonzálezek eta Chavezek bizi osoa daramate horren aurrean lurraldea defendatzen, jaio ziren Tarahumara mendilerroan lurrarekin bat bizitzen jarraitzeko erresistentzian.

Tarahumara Chihuahua estatuaren hego-mendebaldean dagoen inguru malakartsua da, eta azaleraz ia Euskal Herria

halako lau den arren, 335.100 biztanle inguru ditu, kasik Arabak bezainbeste. Amnesty International eragileak Tarahumara mendilerroari buruz eginiko “Entre balas y olvido” (Balen eta ahanzturaren artean) txostenean jasotzen du indarkeria zenbateraino den muturrekoa. Kontuan izan behar da Chihuahua muga egiten duela AEBekin, eta ondorioz, interes ugari eremua dela. Estatu horretako Fiskaltza nagusiak Amnesty Internationali onartu dionez, Tarahumaran indarkeria izugarria eta kontrolik gabea dago, batik bat krimen antolatuko taldeengatik. Talde armatu horiek legez kanpoko droga trafikoari lotuta daude (marihuana eta opio-belarra, nagusiki), eta gehitu behar zaizkio udalerrietako langileen ustelkeria nahiz estatuaren esku hartzerik eza.

“Tarahumara mendilerroan lurraldearen eta ingurumenaren defendatzaile izatea da bizia horri ematea”, ziurtatzen du Isela Gonzálezek. 70 urte ditu, eta ikasketaz erizaina eta antropologoa bada ere, bi hamarkada daramatza Alianza Sierra Madre (ASMAC) elkartean lanean, jatorrizko herrien eskubideen alde. Pentsioduna da, baina ez du lanetik erretiratzeko asmorik, “hankek edo buruak huts egiten ez didaten bitartean”.

Amada Chavezekin horrela egin zuen topo 2007an, ASMAC elkartean zebilela, eta elkarrekin jarraitzen dute borrokan, elkarrekin dihardute kazikeek eta krimen antolatuko sikarioek eragin dieten sufrimendua erreparatzen. 53 urte dituen Chavez indigena da, Coloradas de la Virgen komunitatekoa –800 bat raramuri indigena bizi dira bertan–, eta euren ba-

soa helburu ekonomikoetarako botatzen ari diren jauntxoei aurre egiteagatik berritan desplazatu behar izan du.

González ez bezala, Chavez ez zen eskolatua izan, eta oraindik gogoan du haurra zela nola entzuten zituen helduak “errepide eta kamioi” batzuei buruz hizketan. Ez zuen halakorik ezagutzen, Coloradas komunitatean basoa, mendia eta lakuak besterik ez baitzituzten, bizitzeko behar zuten bezainbeste. Nekazaritza eta abeltzaintza txikitik bizi dira, eta sendabelarrak biltzen dituzte euren beharrak asetzeko.

Errepideak ez zuen ezer onik ekarri, eta Chavezek oroitzen duenez, 13 urte zituela ikusi zuen nola moztutako zuhaitzak zerratokira eramaten zituzten kamioietan: “Errepidearekin furgonetak eta

kamioiak iritsi ziren, baita poliziak eta pertsona armatuak ere. Nik ez nituen ezagutzen, ez nekien ezer ordura arte. Baina haiek iristen hasi zirenean herritarrek beldur handia izan genuen. Errepidea eta zerratokia egin zutenek komunitateko jendea mehatxatzen zuten”. Diruaren bidez herritarrak banatu zituztela dio: ejidatarioen eta komunitatekoen artean.

### **EJIDOK: INDIGENEI LURRAK KENTZeko MEKANISMOA**

Herritarren banaketa horren oinarrietako bat da Coloradas de la Virgen komunitateko lurren jabetza modua. Batetik, raramuriak gehiengoa diren nekazaritza-komunitate forma dago, eta bestetik, herritar mestizoak nagusi dituen *ejidoa*. 1992an eginiko nekazaritza erreformak

ekarri zuen ejido deritzoten lurren eskubideak salerosteko aukera (nekazaritza-komunitateen kasuan ezin da), eta horrek bermatzen du ejidoen gaineko erabakiak hartzea. Tarahumarako kasuan, indigenei lurra kentzeko baliatu zuten pribatizazio hori, Gonzálezek argitu digunez: “Mestizoez egoera aprobetxatu zuten, eta ejidoen jabetza guztia hartu, iruzurren bidez”. Coloradas de la Virgeneko indigenak lur horien gaineko erabakiguneetatik bota zituzten, eta mestizoen eskuetan geratu zen basoaren esplotaziorako baimenak ematea: “Mestizo eta indigenen arteko harremanak asimetria sakonekoak dira, eta hortik datoz kazikismoak: indarkeria, lurren desjabetzea...”, zehaztu du ASMAC elkarteko zuzendariak.



Ezkerrean Isela González ASMACeko zuzendaria eta eskuinean Amada Chavez, Coloradas de la Virgen komunitateko lurren defendatzailea.



ASMAC

Mende hasieran Coloradaseko raramuriak saiatu ziren epaiketa bidez lur horien jabetzak berreskuratzen, baina ez zuten emaitzarik izan. 2007an, ejidatarioek lortu zuten Mexikoko Ingurumen Idazkaritzak baimena ematea basoa esplotatzeko. Amada Chavezek gogoan du zuhaitzak mozten hasi zirenekoa: “Egur mordo ateratzen hasi ziren errepideetatik, eta herrian dirua banatzen. Kazikeek erabakitzen zuten nori eman dirua, eta beti hautatzen zituzten komeni zitzaizkien ejidatarioak, bertan bizi ez zirenak”.

Coloradaseko jatorrizko herritarrek borroka gogortu zuten esplotazioa geldiarazteko, etaaldi berean, kazikeek indarkeria eta errepresioa handitu zituzten. Gonzálezek eta Chavezek harro gogoratzen dute 2015eko lorpena: zuhaitzak ebakitzen jarraitzeko baimenak bertan behera utzi zituen Nekazaritza Auzitegiak. Baina horren kostua oso bortitza izan da; hilketak bata bestearen atzetik, eta mehatxuak etengabe. Bi ekintzaileek diotenez, “legez kanpoko mozketek jarraitzen dute”. “Sikario talde bat dago, eta indigenak desplazatzera behartzen ari dira”. Beldurra barruraino sartu nahi izan diete basoa eta lurrak defendatzen ari direnei.

## DESPLAZAMENDUA ETA DESERRIA

Amada Chavezek dio aurpegia emateko beldurra zuela lehen, hedabideetan agertzekoa; baina bizitakoak bizi ostean, haien herria sufritzen ari dena kontatzeko ahaldundu da. Lider indi-

gena ugari hil zituztela azaldu digu, eta Isela Gonzálezek albotik zehaztasun bat egin dio: “Kontatu zure gertuko zenbat hil zituzten”. Horixe izan baitzen lehen aldiz desplazatzeko motiboa, heriotzak oso gertu jo zuelako Chavezen familia.

“Coloradas de la Virgen komunitetik lehen aldiz irten ginen, nire senarren anaia hil zutelako. Kargu bat zuen komunitatean, eta borrokan sartu zen. Ez zuen egin nahi kazikeek esaten ziotena, ez zegoen ados; horregatik hil zuten”. Handik ihes egin behar izan zuten, baina ez zen bide erraza izan. Familia osoa atera zen, neba-arreba, aiton-ama eta seme-alabak. Chavezek hiru seme-alaba zituen, eta haurdun zegoen. “Haurrak eskutik eta haurtxoak besoetan genituela joan ginen. Ilundutakoan atera ginen,

zurrumurrua zegoelako matoiak nire senarra hiltzera zetozeela. Gau osoa pasa genuen oinez, ilunpetan ez genuelako ondo ikusten; ez genuen argirik piztu nahi gu ez atzemateko”. Bi egun behar izan zituzten babes hartu zuten herrira heltzeko.

Baina 2018an berriro ere desplazatu behar izan zuten, familiako laguna zen Julian Carrillo lider indigena eta lurren defendatzailea hil eta gero. Komunitateko kide ugari hirira alde egin behar izan zuten Carrillo tirokatu zutenean, arriskua erabatekoa baitzen. Bi esalditik batean, beste kide bat hil zutela oroitzen du Chavezek; dozenaka dira. “Mina egin digutenek ordaindu dezaten nahi dugu, justizia egitea”, dio Chavezek malko artean. “Juliani ohartarazi genion komunitatetik joateko. ‘Artoa erein ostean’, esan zigun. Lehenago hil zuten”.

Carrilloren kasua esanguratsua izan da, Coloradas de la Virgenen ez ezik nazioartean ere bai. Amnesty Internationalek hari buruz egindako txostenean jasotzen du Mexikoko Estatuak ez zuela gizona babesteko egin beharra bete. Izan ere, 2014an ASMACen eta Isela Gonzálezek bidez, besteak beste, lortu zuten Julian Carrillori eta beste lider komunitario batzuei babes neurriak ezartzea Mexikoko Estatuak. Alferrik izan zen: Carrilloren familiako hainbat kide hil eta bere etxea erre zuten, harik eta 2018ko urrian bera hil zuten arte.

Amnesty Internationali Carrillok hil aurretik zera jakinarazi zion: heriotza mehatxuek beldurra sentiarazten ziotela, baina lurraldearekin zuen lotura eta harreman estuagatik Coloradas de la Virgenen geratu behar zuela. Nazioarteko eragileak azpimarratzen du Carri-





Illoren kasuak argi uzten duela Mexikoko Estatuaren porrota, herri indigenen eskubideak bermatzeari dagokionez: “Akatsa da giza eskubideen defendatzaileen babes mekanismo jakin batzuetara mugatzea. Haiei arrisku-testuingurua sortzen dieten egiturazko kausei erantzungo dien politika publiko integralak behar dira”.

### **BABES MEKANISMOAK ERAGINKORRAK DIRA?**

Isela Gonzálezek ere ondo ezagutzen ditu babes mekanismoak, izan ere, kazikeen mehatxuen eta talde armatuen arriskutik babesteko hainbat neurri jarri zizkioten 2011z geroztik. Are gehiago, ASMAC elkartearen zuzendaria izanik, aurpegi ezaguna da eta jo-puntuan izan dute. “Babes plan oso zorrotza daukat. Etxetik ez naiz ateratzen ia, soilik lanera joateko, eta hori Giza Eskubideen Fiskaltzak jarritako bi poliziak zainduta egiten dut”. Kamerak eta larrialdi botoiak ere jarri dizkiote. Etxetik atera behar duen aldiro poliziek egin behar izateak askatasuna mugatzen diola iritzi du, baina frogatu ahal izan du nahiago duela horrela bizi, kanpoan desplazatuta egotea baino.

Dena den, babesteko beste modu batzuk ere bilatu ditu: “Nazioarteko

brigaden eta beste antolakunde batzuen bidez ikasi dugu Mexikon ere. Batetik, parte hartzen dugun sare eta aliantzak aprobetxatzea, eta horrela defendatzaile gisa ikusgarritasuna lortzea; horrek apur bat aldentzen ditu erasoak. Egia da batzuetan ikusgarritasunak erasoak areagotu ditzakeela, horregatik, metodologia bat daukagu baloratzeko noiz komeni den profila altxatzea eta noiz jaistea”. Bestetik, tokiko sareetan antolatuta egoteari ere garrantzitsua deritzo. Esaterako, egun, González babesten du lurralde indigenen defentsarako sareak. “Horrela zaintzen dut nire burua”.

Komunitateetan bizi diren defendatzaileen kasuan, ordea, Gonzálezek baieztatu digu mekanismo horiek ez direla nahikoa. “Haiek eskatzen dutena da babes mekanismoak ez izatea polizialak eta erreaktiboak. Alegia, ez da nahikoa segurtasun arazo bat dagoen bakoitzean armada edo segurtasun nazionala bidaltzarekin”. Komunitateetako herritarrek Mexikoko Estatuari galdegiten diote inpunitaterik ez egoteko, eta zigortzeko desplazamenduen eta erasoen erantzuleak. Horretarako, gertatutakoa ikertu beharko lukete, baina, momentuz, estatuko ordezkariak ez dira lurraldera gerturatu ere egin.

### **FEMINISMOA, BABESLEKU**

Amada Chavez eta Isela Gonzálezekin tzaileek azpimarratu digute elkar zaintza ezinbestekoa dela borroka latz honetan aurrera egiteko. Eta lurren defentsan ere ikuspegi feminista izateak lagundu diela ziurtatu digute. Emakumeen arteko ahalduntze tailerretan ezagutu ziren biak, Chavez lehen aldiz desplazatuta zegoela. Gonzálezek baieztatu du bere aktibismo ibilbide osoan –Mexikoko Juventud Komunistan hasi zen, ikasle zela– agenda feminista presente izan duela eta borroka guztietan lagundu diola ikuspegi horrek.

Azken urteetan, gainera, lurren defentsako sare nazionalaren parte denetik, feminismoak zaintza modu ezberdina erakutsi dio: “Feminismoak lagundu dit esaten norbere burua zaintzeko beste modu bat dagoela, perspektiba feminista integraletik. Hau da, emakumeen arteko elkar-zaintza du oinarri, eta sororitatea, laguntza emozionala eta maitasuna lantzen ditugu”. Halaber, nabarmendu dute zaintza edo babes behar duen pertsonak horretarako espazio fisikoak izatea beharrezkoa dela. Arriskutik atsedean hartu eta indartuta itzultzeko espazio horiek eskertzen dituzte. Guatemalako bidaiatik ere hori hartu dute: herri indigenen arteko elkartasuna, eta lurra defendatzen jarraitzeko grina. ●